

Memoria 21

I

Berdintasunerako Zerbitzua
Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila



Azaleko irudia: “HARA! IV. Plana”, diseinua: HABEMUSSTUDIO; eta “HARA! Agenda”, diseinua: Sra. Milton, IV. Planaren irudietatik abiatuta.

00

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Aurkibidea	3
Sarrera	5
1. Ildoa: Berdintasuna udal-gobernuaren eremuan	8
1xe: Gasteizko udalak berdintasunarekin duen konpromisoa zehaztea	9
2xe: Udaleko langileak berdintasunaren arloan pixkanaka gaitzea.....	9
3xe: Aurrera egitea genero-ikuspegia plangintza estrategikoetan, egintza eta administrazioaren egintza eta prozedura komunetan sartzeko orduan	10
4xe: Udal barruko, udalen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetz sustatzea.....	12
5xe: Udaleko berdintasun-politika indartuko duten parte hartzeko guneak bultzatzea....	12
2. Ildoa: Zaintzen ekonomia feminista	13
1xe: Zaintzen hornidura- eta harrera-eredua bidezkoagoa eta jasangarriagoa izan dadin laguntzea	14
3. Ildoa: Ahalduntze feminista	15
1xe: Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboari laguntzea	16
2xe: LGTBI pertsonen ahalduntze pertsonal eta kolektiboari laguntzea	21
3xe: Gasteizen berdintasunerantz abiatzearekin dagoen gizarte-konpromisoa babestea	22
4. Ildoa: Indarkeria matxistatik gabeko hiria	23
1xe: Indarkeria matxistaren prebentzioari, sentsibilizazioari eta salaketari laguntzea	24
2xe: Erakundearen barruko eta erakundeen arteko koordinazioa.....	32
3xe: Indarkeria matxistaren biktimei aitortza egitea eta beren erreparazioari laguntzea.	32
Zerbitzuaren organigrama	34
Zerbitzuaren laburpen ekonomikoa 2021	36

01

SARRERA

SARRERA

Gasteizko Udalak 19 urte baino gehiagoko ibilbidea du tokiko berdintasun-politikak diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen. Konpromiso horren ondorioz, berdintasunaren alorrean, plangintza orokorreko bost tresna onartu dira orain arte:

1. Gasteizko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana (1999-2003)
2. [Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana \(2009-2011\)](#)
3. [Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana \(2014-2015\)](#)
4. [Hara! Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Plana 2018-2021](#) eta [Hara! Agenda \(2018-2021\)](#)

Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuaren xedea da **udal-erakunde**an, **honen egituran zein pertsonengan aldaketak eragitea**, eremu publikoan eta pribatuan genero-berdintasuna bultzatzeko. **Berdintasun hori udal-politika publiko baten bidez lortu behar da**, sexu- eta genero-aniztasuna barneratzeko bidean aurrera egingo duena, giza eskubideen esparruaren barruan.

Horretarako, hauek dira Zerbitzuaren printzipio bideratzaileak:

PARADIGMA FEMINISTA

IV. Plana ikuspegi teoriko eta praktiko feministatik abiatzen da. Paradigma feminista da emakumeek historian egin duten ekarpenik garrantzitsuenak, eta feminismoaren eraginik handiena duten gizarteetan sortzen dira genero-harremanik berdinezaleenak eta bidezkoenak. Mugimendu feminista aktiboago dagoen tokietan daude politika publiko aitzindarienak eta aurreratuenak.

BEHAR ADINAKO ARRETA

Behar adinako arretaren eraginez, Gasteizko Udalak Hara! IV Planak eta Hara! Agendak jasotzen dituzten ekintzak gauzatzeko konpromisoa eta ardura hartu behar dituela, jarrera aktiboa agertuz, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak sortuz eta eskura jarritz.

GENERO- ETA INTERSEKZIO-IKUSPEGIA

Udalaren berdintasunerako politika publikoen subjektu politikoa hedatu da, arau heterosexista eta sistema heteropatriarkalaren eraginez diskriminatuak diren pertsonak barnean hartzeko. Halaber, intersekzio-ikuspegia hartzen du, eta kontuan hartzen ditu generoaren zer-nolako intersekzio egiten dituen desberdinkeraren beste iturri batzuekin, hala nola aniztasun funtzionalarekin, etniarekin, arrazalizazioarekin, adinarekin, maila sozioekonomikoarekin, jatorriarekin, sexu- eta genero-aniztasunarekin, egoera administratiboarekin eta abarrekin.

PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

Lortu nahi den ereduak praktika edo lan-metodologiatzat hartu behar du parte-hartzea, eta ez unean uneko prozesua izango balitz bezala. Gobernagarritasun demokratikoagoaren parte izan behar du parte-hartzeak, eta, horretarako, parte hartzeko ereduaren benetan abiarazteko behar diren prozesuak, tresnak, espazioak eta baliabideak eskaini behar dira. Hau da, berdintasun-politikek eta agenda publikoek metodologia modura sartu behar dute parte-hartzea, politika eta agenda horiek diseinatzeko, abiarazteko eta horien jarraipena nahiz ebaluazioa egiteko orduan.

GARDENTASUNA

Berdintasunaren arloan egiten denaren gainean kontu ematea da gardentasuna, politikak ebaluatuz eta emaitzen berri emanez. Gardentasuna izateko, Udalak barne-mailan eta herritarren artean jakinarazi behar du zer-nolako aurrerapenak egiten diren Gasteizen berdintasunaren arloan, eta diru publikoak lan horretan nola laguntzen duen azaldu behar du.

BERDINTASUN-POLITIKEN IRAUNKORTASUNA

Berdintasun-politiken iraunkortasunak konpromiso politikoa behar du, eta hori zehaztu daiteke berdintasun-arloko araudi bat onartuz, sailarteko egitura politikoko eta teknikoko genero-arkitekturaren bidez edo berdintasun-gaietan espezializatuta dauden pertsonez osatutako Berdintasunerako Zerbitzu sendo bat izanda. Iraunkortasunerako, berdintasun-politiken kopuruaren gainetik jarri behar da horien kalitatea, eta arreta berezia jarri behar zaio hala edukiari, generoa eraldatzeko politikak izan daitezen, nola aurrekontu- eta baliabide-hornidurari, benetan gauzatu daitezkeen politikak izan daitezen.

KUDEAKETA-SISTEMA

2020an *Hara! Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Planaren* eta *Hara! Agendaren* bigarren biurtekoak hasi ziren, eta Berdintasunerako Zerbitzuak abian jarri zuen esku hartzen diren lau ildo estrategikoetako bakoitzean programatutako jardueren jarraipen-sistema.

2021ko memoria hau oinarrizko tresna bihurtu da bigarren biurtekoaren garapena eta ezarpena aztertzeko, berdintasunaren arloan egindakoari eta hori gauzatzeko moduari buruzko informazioa ematen baitu.

Kudeaketa-sistemaren helburu nagusia informazio-sistema iraunkor bat diseinatzea da, jardueren betetze-maila, lortzen ari diren aurrerapenak eta horiek gauzatzeko sortu diren zailtasunak identifikatu ahal izateko. Jarraipen-txostenak *Hara! IV. planaren* ebaluazio orokorrerako abiapuntu izango dira, eta Berdintasunerako Zerbitzuak programazio horren emaitzen eta eraginaren ikuspegi orokorra izan dezan ahalbidetuko dute.

02

1. ILDOA: BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN

1. ILDOA: BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN

Ildo honetan deskribatzen da zer-nolako lana egin den genero-ikuspegia zehar-lerro gisa ezartzeko gobernu-ereduan: antolakuntza-kulturan, giza baliabideetan, lan-prozesuetan eta -prozeduretan, langileen gaitzean, koordinazioan, lankidetzan eta parte-hartzean.

1XE: GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA ZEHAZTEA

Berdintasunerako Zerbitzuari 555.000 euro eman zaizkio berdintasuna bultzatzera zuzendutako programak, hitzarmenak eta dirulaguntzak garatzeko; horrez gainera, langileak ordaintzeko dirua eman zaio, eta 2020an zerbitzuarekin bat egindako berdintasun-eragilearen kontratua luzatu da.

2021aren bukaera aldera, Hara! Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Planaren eta Hara! Agendaren bigarren biurtekoaren (2020-2021) programazioa ebaluatu da eta jarraipena egin zaio, sexu- eta genero-aniztasuna Gasteizko Udaleko politiketan txertatzeko.

Urtero egiten den eran, adierazpen instituzionalak onartu eta zabaldu ziren [M8](#), [M17](#) eta [A25](#) egunen harira; hala, udalak Genero-berdintasunarekin duen konpromisoa berretsi zen.

Berdintasun-politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko Agendari dagokionez, 2021eko bigarren sei hilabeterako, udal zerbitzu eta sail gehiagok hitzeman dute SGARI buruzko ekintzak egingo dituztela; beraz, pentsatzen dugu zehar-lerro izaera indartu egingo dela *Hara! Agenda 2022-2025*ren lehen biurtekoan. Bestalde, espero dugu handik aurrera ere bide berean jarraitzea.

Orain arte planifikatu diren ekintza guztiak –prestakuntza aintzat hartu gabe– eremu sinbolikoari dagozkio, hau da, heterosexualitateaz kanpoko sexu-orientazioak eta zis gizon-emakumez bestelako genero identitateak aitortu dira. Oinarri sinbolikoa ezarri ostean, zeina guztiz garrantzitsua baita, beste eremu erabakigarri bateko ekintzez pentsatzen hasiko gara: banaketaren arloko ekintzez, hain zuzen.

2XE: UDALEKO LANGILEAK BERDINTASUNAREN ARLOAN PIXKANAKA GAITZEA

“Lenguaje no sexista e imágenes inclusivas – Genero eta euskararen erabilera egokia” ikastaroaren bi edizio egin dira, udaleko teknikariei zuzenduta; Berdintasunerako Zerbitzuak antolatu ditu, Giza Baliabideen prestakuntzaren markoan. Lehen edizioa irailaren 21ean eta 24an egin zen; bigarrena, berriz, hil horretako 22an eta 29an. Lehen saioan –4 ordu iraun zuen– “El uso no sexista del castellano e imágenes inclusivas” landu zen, gaztelaniaz, eta bigarren saioan, berriz –2 ordukoa– “Genero eta euskararen erabilera egokia” landu zen, euskaraz. **Amelia Barquín López**ek eskaini zituen lau saioak.

Prestakuntzaren helburua honakoa izan da: hizkuntzaren erabilera egokitu behar dela ikusaraztea, lortu nahi genukeen errealitatearekin bat datorren gizon-emakumeen irudi bat proiektatzeko moduan. Halaber, tresnak eman nahi dira dokumentuak idazteko eta ahozko komunikazio egokia garatzeko.

Parte-hartzeari dagokionez, datu hauek bildu dira parte hartu duten 21 zerbitzuetan:

El uso no sexista del castellano e imágenes inclusivas: 81 lagun, 61 emakume eta 20 gizon.

Genero eta euskararen erabilera egokia: 66 lagun, 49 emakume eta 17 gizon.

Azaroaren 22an, Giza Baliabideen Saileko prestatzaileekiko lankidetzan, **sexu- eta genero-aniztasunerako (SGA) sarrera ikastaroaren hirugarren edizioa** gauzatu genuen; 5 ordu iraun zuen. Saio horretan, Miquel Missé-k –soziologoa eta trans aktibista, ikertzailea eta SGARI buruzko politika publikoaren arloko prestatzailea– SGAREN marko teorikoa azaldu zuen, LGTBI akronimoan bildutako errealitate guztiak aintzat hartuz. Halaber, arlo horretan tokiko politikak garatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Udal langile guztiei eskaini zitzaizkien prestakuntza-saio hori.

Guztira, 40 lagun joan ziren: 30 emakume eta 10 gizon.

Azaroaren 23an, Giza Baliabideen Saileko prestatzaileekiko lankidetzan, **SGA arloan sakontzeko ikastaroaren bigarren edizioa** gauzatu genuen; 5 ordu iraun zuen. Saio horretan, oinarrizko teoriaren – sarrerako ikastaroan ikasia– eta politika publikoen arloko praktikaren arteko harremanean sakondu zuen Missék. Parte-hartzaileek, hala, SGA beren lanean nola ezarri dezaketen ikasi zuten, beste erakunde batzuek hainbat arlotan -kirola, kultura edo hezkuntza– abiatu izan dituzten praktika onen adibideen bitartez. Sarrerarikastaroaren aurreko hiru edizioetako batera joandako udal langileei zuzenduta zegoen saioa.

Guztira, 23 lagun joan ziren: 18 emakume eta 5 gizon.

3XE: AURRERA EGITEA GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ESTRATEGIKOETAN, EGINTZA ETA ADMINISTRAZIOAREN EGINTZA ETA PROZEDURA KOMUNETAN SARTZEKO ORDUAN

BERDINTASUNERAKO ZERBITZUAREN INFORMAZIOA ETA KANPO-KOMUNIKAZIOA

Kanpo-komunikazioari dagokionez, Berdintasunerako Zerbitzuak honako bitarteko hauek erabiltzen ditu: **web orria, buletin elektronikoa** eta sare sozialak (**Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube**); barne-komunikazioari dagokionez, berriz, albisteen atala **Intranet**ean. 2021ean, Gasteizko Emakumeen Etxearen **Instagram** kontu berri bat sortu da: @emakumeenetxeaVG.

2021ean webgunean sortutako gauza berrien artean, azpimarratu beharra dago Gasteizko Emakumeen Etxeari eskainitako atal bat sortu dela (www.gasteiz.org/emakumeenetxea). Etxeari eta bertako printzipio zein historiari buruzko informazio orokorra emateaz gainera, lau sail bereizi daude: Zerbitzuak eta Proiektuak, Etxeko Talde egonkorak, Jabetze Feministarako Eskola eta Agenda.

Bestalde, 2021ean Jabetze Feministarako Eskolari dagokion atala egituratu eta eguneratu da, eta programazioko arlo bakoitzerako botoiak sortu dira: Hitzaldiak, Arte Eszenikoak, Irakurle-klubak, #FeminismoanItzel, Ikastaroak eta Lantegiak eta Ikerlan Feministen Lehiaketak. Horrela, argiago eta errazago agertzen da informazioa.

Azkenik, *Bideotekari* dagokion atala eguneratu genuen; orain, [Zerbitzuak Youtuben duen kanalera](#) bidaltzen zaitu. Kanal horretan, hain zuzen, 141 bideo daude (2020an 11 egin ziren; 2021ean 14). Nagusiki, Jabetze Eskolako hitzaldien grabaketak dira, eta, neurri txikiago batean, eskola horretan egindako lantegi batzuei buruzko laburpen-bideoak. Denera, bideo horiek guztiek 13.860 ikustaldi izan dituzte orain arte (2022ko urtarrila).

Sareei erreparatuta, **Twitter** bidez jende gehiagok jarraitzen gaituela egiaztatu dugu: [@VG_berdintasuna](#) erabiltzaileak 1.306 jarraitzaile zituen 2020ko otsailean, eta 1.544, berriz, 2022ko urtarrilean. Era berean, **Facebook** orrialdearen ([Berdintasuna VG](#)) jarraitzaile-kopurua hazi da: 810 zituen 2020ko otsailean, eta 927 2022ko urtarrilean; orrialdeko horretako “Atsegin dut” kopuruari dagokionez, 742tik 790ra igo zen denboratarte berean.

Bestalde, jende gazteak ez ditu asko erabiltzen Facebook eta Twitter sare sozialak, eta gazteak direnez indarkeria matxistaren prebentziorako Libre Izan Nonahi Estrategiaren xede-hartzaileak, kontu bat sortu zen **Instagram** deritzon sarean: estrategia hori iragartzeko bakarrik erabiltzen da. Hiru sare sozialen artean, Instagramen gertatu da elkarreragin-jarduera gehien; hori dela-eta, sare sozial hori elikatzen segitzeko asmoa dago. 2021aren amaieran, [@libreizannonahi](#) kontuak 236 jarraitzaile zituen, eta 99 argitalpen.

Beste alde batetik, Emakumeen Etxearen kontuak (@emakumeenetxeaVG) 250 jarraitzaile ditu, eta 40 argitalpen dituzte, hamaika stories sortzeaz gainera.

Azkenik, buletin elektronikoei dagokionez, 2021ean 8 buletin bidali ziren guztira. Gaur egun, 2.044 pertsona eta erakunde daude harpidetuta (iaz baino 165 gutxiago), eta [hemen](#) irakur daitezke.

2021eko uztailen, Ohiko Galderen (FAQs) ataleko [testuak](#) eguneratu genituen Berdintasunerako Zerbitzuaren webgunean; sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa erantsi genuen, baita sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik gauzaten den indarkeriaren (LGTBfobia) buruzkoa ere bai, herritarren artean kontzientzia pizteko gaiaren harira.

INFORMAZIOA BILTZEKO GARAIAN SEXU-GENEROAREN ARABERAKO SAILKAPENA MODU INKLUSIBOAN ERABILTzea

Berdintasunerako politika publikoen subjektua zabaldu dela aintzat hartuz, Zerbitzuak proposatu du sexu-genero kategoria modu inklusiboan bil dadila herritarrek erabiltzen dituzten dokumentuetan (eskaerak, eskabideak, inprimakiak, erreklamazioak etab.), bai eta Gasteizko Udaleko barne-agirietan ere. Kategoria inklusiboa modu honetan bilduko litzateke: Sexu-generoa: Emakumea/Gizona/Ez bitarra.

Berdintasunerako Zerbitzua agiri bat prestatzen ari da, honako helburu honekin: forma inklusibo horri buruz dagozkion azalpenak ematea udal zerbitzuei eta sailei, hala eskatzen badute; onartua izateko zain dago, eta, ondorioz, oraindik ez zabaldu.

Hirugarren laukia, besteak beste, Berdintasunerako Zerbitzuak 2021ean antolatu dituen eta Udalak 12-26 urte bitarteko gazteei zuzentzen dien Indarkeria matxistaren prebentziorako eta kontzientziaziorako Estrategiaren parte diren jarduera guztietako ebaluazio-galdetegietan txertatu da.

GENERO-ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOAK UDAL-PLAN, -ARAUDI ETA -PROIEKTU ESTRATEGIKOETAN

2021ean, Berdintasunerako Zerbitzuak laguntza eman dio Aurrekontuen Zerbitzuari, **Gasteizko Udaleko Aurrekontu Orokorren** genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa garatzeko prozesuan. Laguntza horrek, funtsean, aholkularitza izan du oinarrian; prozesua bera Aurrekontuen zerbitzuak gauzatu du, modu autonomoan jarduten baitu. Hala, Aurrekontuen Zerbitzuak –hiru urte daramatza lanean, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko bidean– zenbait dokumentu sortu ditu, eredu edo gida moduan balio dezaten, prozesuan diharduten Unitateek, Zerbitzuek eta Sailek beren aurrekontuak aztertzea errazteko. Dokumentu horietako bat da honakoa: Genero-ikuspegia udal aurrekontuetan txertatzeko jarraibideak.

Bestalde, 2021ean, EHuko irakasle Mertxe Larrañagak eta Yolanda Jubetok prestakuntza-saio bat eskaini zuten, eta 6 Sailek parte hartu zuten: 12 zerbitzu izan ziren, 21 lagun guztira (11 emakume eta 10 gizon).

Prestakuntza-saioaren ostean, Berdintasunerako Zerbitzuko teknikari batek laguntza eskaini zien Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko gainerako Zerbitzuei (Bizikidetzeta eta Aniztasuna; Gazteria; Euskara) aurrekontuaren genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioaren fitxa sortzeko. Lau fitxak aintzat hartuta (aipatutako hiru zerbitzuen fitxa gehi Berdintasunerako Zerbitzuarena) Sailaren laborpen-txosten bat egin zen, eta Aurrekontuen Zerbitzuari bidali zitzaion, 2021eko aurrekontuetan genero-ikuspegiak izandako lekuari buruzko txostenean sar zezan.

Gainera, **Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko** teknikariei ere laguntza eskaini zitzaion –haiek eskatuta– plan partzial batzuen proiektuen harira genero-eraginari buruzko txostenak gauzatzeko garaian.

- ARMENTIA MENPEKO TOKI ERAKUNDEAN HAPOREN ZATI BATEN BERRIKUSPENA. 2021eko martxoan.
- “BORINBIZKARRA” 1. SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN HAMARGARREN ALDAKUNTZA. 2021eko apirila.
- ARABA TEKNOLOGIA PARKEA SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN HAMARGARREN ALDAKUNTZA (ST-5, antzinako 11. Sektorea). 2021eko maiatza.
- GASTEIZKO HAPEKO 3.1/1-3.1/2 EREMUKO KUARTELEN ETXADIA BARNE BERRIKUNTZARAKO 7. PLAN BEREZIAREN 5. ALDAKETA. 2021eko ekaina.
- JUNDIZ-MENDEBALDEKO S-21 PLAN PARTZIALAREN 1. ALDAKUNTZA, IPAR-EKIALDEKO LURSAILEN BERREGITURATZEARI DAGOKIONEZ. 2021eko azaroa.

4XE: UDAL BARRUKO, UDALEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA

Udal barruan, hainbat arlotan parte hartu du Berdintasunerako Zerbitzuak, hala nola osasun-batzordean, ekonomia berrien taldean eta klima-aldaketara egokitzeko planaren gauzapenean, baita beste prozesu batzuetako bileretan ere, beste Sailek Zerbitzuari parte hartzeko eskatu dioten kasuetan hain zuzen.

Udalen eta erakundeen arteko koordinazio-espazioei dagokionez, Berdinsarearen batzorde eta batzarretan parte hartu da; Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea da hori. Bestalde, udal bileretan ere parte hartu da.

- Indarkeriari buruzko batzordea
- Berdintruke: zainketak
- Berdintruke: jaiak
- Emakumeen Etxeen Sarea

5XE: UDALEKO BERDINTASUN-POLITIKA INDARTUKO DUTEN PARTE HARTZEKO GUNEAK BULTZATZEA

Berdintasunaren Elkargunea bi bider bildu zen 2020. urtean. Hona hemen orain arte egin diren Elkarguneetako [gai-ordenak](#), [akordioak](#) eta [aktak](#) irakurtzeko esteka. Elkargunearen ordezkartza, praktikan, Kuentame elkarteko bi bozeramailearen esku egon da. Bi bozeramaileek hala eskatu dutenean parte hartu du Berdintasunerako Zerbitzuak.

03

2. ILDOA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

2. ILDOA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

Ildo honetan, zainketen arloko premiei eta sektorean diharduten emakumeen beharriaz erantzuteko behar diren udal mekanismoen hobekuntzaren eta artikulazioaren harira egindako lanari buruzkoak azaltzen dira, baita erantzunkidetasunari eta kontziliazioari buruzkoak ere; hala, ikusgai jarri nahi dira zainketa-lanak eta adierazi nahi da erantzunkidetasuna beharrezkoa dela zainketen horniduran.

1XE: ZAINKETEN HORNIDURA- ETA HARRERA-EREDUA BIDEZKOAGOA ETA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN LAGUNTZEA

Gasteizko etxeko eta zainketako emakume langileei laguntzeko estrategia feminista babesten segitu du Berdintasunerako Zerbitzuak.

Aurten, prozesu honen helburua etxeko eta zainketako emakume langileen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa finkatzea eta sendotzea izan da, bai eta AEZLE elkartearena ere (Arabako Etxeko eta Zainketako Langileen Elkarte); halaber, horien parte-hartze prozesua sendotu nahi izan da, begirada interseksionala aintzat hartuz (kultur jatorria, egoera sozioekonomikoa eta generoa), haien giza eskubideen defentsari on egin diezaion.

Proiektu honetan hainbat taldek dihardute, eta partzuergo bat osatzen dute; iaz bezala, haiak bultzatu dute estrategia: Enarak Kooperatiba, Medicus Mundi Araba, Asve (Elkarte Euskal-Ekuatortarra) eta ASCUDEAN (Familia Zaintzaileen eta Mendeko Pertsonen Elkarte).

Aurtengo programazioa diseinatzeko garaian, prozesuko parte-hartzaileen eskaerei erantzun nahi zitzaion, etxeko eta zainketetako langileen eskaerei, alegia. Jarduerak eta topaguneak antolatu dira, hilean bi aldiz, larunbatez, eta esku-hartzeen arloko lau ildo estrategiko garatu dira: elkarteak indartzea, autozainketa, ahalduntze feminista eta sareak, eta eragin politikoa. Prozesu horren emaitza izan da, besteak bestea, Arabako Etxeko eta Zainketako Langileen Elkarte AEZLE deritzon kolektiboa elkarte gisa osatu izana.

04

3. ILDOA: AHALDUNTZE FEMINISTA

3. ILDOA: AHALDUNTZE FEMINISTA

Ildo honetan, ahalduntzeari laguntzeko espazio feministen sorreraren eta finkatzearen harira egindako lanari buruzkoak aletzen dira; halako espazioetan, ahalduntzea bultzatzeko, hausnarketa, elkartrukea, prestakuntza eta parte-hartzea sustatzen dira, bai eta berdintasunerako aurrerapen soziala ere, honako xede estrategikoen bitartez.

1XE: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

GASTEIZKO JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA:

Eskolaren 2020/2021 edizioan, 72 jarduera programatu ziren, eta 68 gauzatu; lau lantegi bertan behera geratu ziren, jende gutxik eman zuelako izena edo arazoak suertatu zirelako prestatzailearen agendarekin. Jarduera horien artean, 12 jarduera egin dira #Feminismoanltzel programazioaren barruan: 18 urtetik beherako pertsonei zuzendutako prestakuntza-ildo da.

Proposamen gehienak ikastaroak eta lantegiak izan ziren (% 51); ondoren, hitzaldiak (% 21), ikuskizunak eta dokumentalak (% 13), irakurle-klubak (% 6), Entre3 zine-foruma (% 4) eta irekiera- zein itxiera-ekitaldiak (% 3).

Guztira, 2.946 pertsonak parte hartu zuten: 1.256 parte-hartzaile online (% 43) eta 1.390 parte-hartzaile aurrez aurre (1.161 emakume, 205 gizon eta 20 ez-bitar).

Edizio honetan alde handiz gainditu ziren aurreko edizioetako parte-hartzearen kopuruak: 2019-2020an 1.380 parte-hartzaile izan ziren, eta 2018-2019an, berriz, 1.685.

Ikerlan Feministen Lehiaketari dagokionez, [honako proposamen hauek \(1. Edizioa. 2021\)](#) hautatu eta argitaratu ziren:

- **Nire gorputza gudu-zelai bat da. Feminismoen rola emakume gasteiztar lodien bizipenetan.** Irati García López de Aquileta.

- **Literatur klub feministen lanaren bisibilizazio premia.** Gema Lasarte Leonet eta Andrea Perales Fernández de Gamboa

Aurreko edizioetan bezalaxe, azpimarratu behar da asebetetze-maila handia adierazi dutela lantegietako parte-hartzaileek, eta prestatzaileei buruzko oso balorazio onak nabarmendu dituzte (5, 6/7). Informazio zehatzagoa nahi izatera, ikus [Eskolaren Memoria 2020/2021](#).

#Feminismoanltzel

Eskolako prestakuntza-ildo honetako jardueretan 141 gaztek parte hartu zuten guztira.

Parte-hartzea dezente handiagoa izan zen aurreko ikasturtearekin alderatuta (108 lagun). Parte-hartzaile gehienak neska gisa identifikatu ziren (% 80), gero mutil gisa (% 18) eta besteak ez-bitar gisa (% 1).

Adin-tarteari dagokionez, parte-hartzaile gehienak 10-13 urte bitartekoak izan ziren (% 58), ondoren 14-16 bitartekoak (% 25) eta, azkenik, 17-18 bitartekoak (% 15).

Jabetze Eskola Feministak 11. edizioa bete zuen 2021eko irailean. Ikasturte honetan, **Eskolaren eta Etxearen arteko lotura** azpimarratu nahi izan da, izan ere, Emakumeen Etxearen prestakuntza-tresna bihurtuko da Jabetze Feministarako Eskola.

- Herri Handi. Herri handi baten hitzaldiak infernu txiki baterako

Ziklo honen bigarren edizioa erresistentzian diharduten herriei zuzenduta egon da. Nikaraguako, Saharako, Palestinako, Erdialdeko Amerikako eta Ekuadorreko aktibista batzuek azaldu dute zer-nolako borrokak garatzen ari diren beren testuinguruan, hainbat arlori dagokionez: justizia ekonomikoa eta ingurumen-justizia;

gorputz-lurraldearen gaineko eskubideak; abortuaren despenalizazio soziala zein legezkoa; egiari, justiziarri, erreparazioari eta ez errepikatzeko bermeari dagozkion prozesuak; sistema sionistaren aurkako erresistentzia, palestinarren kasuan, eta estatugintza, berriz, sahararren kasuan.

- **Ikerlan feministen lehiaketa**, “Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agenteak” UPV/EHUren masterrarekin lankidetzan.

Lehiaketa horren bigarren edizioa abiatu da, Eskolaren barruan ezagutza eta ikerketa feminista bultzatzeko xedez, eta, modu horretan, herritarren ahalduntze feminista lortzen laguntzeko. Bigarren edizioan 7 proposamen aurkeztu dira, eta hauek aukeratu ditugu:

- **40 años de autodefensa feminista en Gasteiz. Una aproximación a su genealogía y a sus protagonistas.** Mentxu Ramilo Araujo.
- **Gasteizko eskola-eremuan sexu-hezkuntzarako erabiltzen diren material eta baliabideak aztertzea, ikuspegi sexologiko, feminista eta interseksionaletik // Análisis de materiales y recursos para la educación sexual en el ámbito escolar de Gasteiz, desde una perspectiva sexológica, feminista e interseccional.** Itziar Nanclares de Gamboa eta Borja Muñoz Arrastra.
- **Gizon ez-heterosexualek guraso-desira ez-patriarkalen iruditeriak zabaltzen. Ikuspegi interseksionala.** Borja Muñoz Arrastra.

- **Euskararen sustapena.** Eskolaren 2020/2021 edizioko proposamenei dagokionez, % 33,77 euskaraz izan dira; hortaz, aurreko edizioan baino % 9,1 gehiago. Gainera, Baietz ulertu zigilua sortu da: zigilu hori euskarazko jardueren batzuen ondoan agertzen da programazio-eskuorrian, eta esan nahi du halako jardueretan parte hartzeko ez dela beharrezkoa jendaurrean euskaraz mintzatzea, bai ordea hizkuntza ulertzea.

- Alderdi praktikoei buruzko berrietasunak 2020-2021 edizioan:

- o **Aurrez aurreko hitzaldiak** streaming bidez ikusteko aukera eskaini da; horretarako, atal bat sortu da webean: www.gasteiz.org/EEF-endirecto (gaztelaniaz) eta www.gasteiz.org/JFE-zuzenean (euskaraz).
- o COVID-19ren kutsadura eragozteko neurri gisa, pandemiaren aurretik libreak ziren jardueretan parte hartzeko **gonbidapena alde aurretik eskatu** behar izan da; izena eman behar zen, halaber, ikastaroetan, lantegietan eta irakurle-klubetan parte hartzeko.

Esteka honetan ikus dezakezue [Eskolaren 21/22 programazioa](#).

- Talde Egonkorak: Eskolatik Etxera

Jabetze Feministarako Eskolaren barruan sortutako hiru talde –“Entre Madres”, “Feminista Agenda Irakurle Kluba” eta “Autodefensa feminista para adolescentes-estable”– Emakumeen Etxeko parte izango dira aurrerantzean, taldeen eboluzio naturala dela-eta. Orain, etapa berri bati ekingo diote: Etxeko talde autonomoak izango dira; hala, feminismoarengatik eta feminismoarentzat hazten segitzeko modua izango dute, prozesu gisa.

EMAKUMEEN ETXEA GASTEIZEN

Emakumeen Etxea 2019an zabaldu zen, hiriko mugimendu feministaren aldarrikapen historiko bati erantzuteko asmoz: izan ere, hiriko emakumeen, lesbianen eta transen ahalduntzerako eta haien eskakizun zehatzak kudeatzeko espazio baten beharra azpimarratzen zen. Etxea zabaldu zenetik, Sorginenea elkarteak –espresuki horretarako sortu baitzen– proiektua kudeatu du Udalarekin elkarlanean, lankidetzaz hitzarmen baten bidez. Halaber, Emakumeen Etxea zabaldu eta gero, Jabetze Feministarako Eskola haren edukia parte izatea zen asmoa, Etxeko prestakuntza-tresnetako bat izan zedila alegia; aldi berean, Sorginenearen proiektua gauzatu zen.

Nolanahi ere, 2021etik aurrera, Sorgineneak uko egin zion proiektuaren kudeaketari, barne-hausnarketa prozesu berri bat ekiteko asmoz. Horregatik, Gasteizko Udalak, Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez, Emakumeen Etxea kudeatzeko ardura hartu du behin-behinean; printzipioz, legealdia amaitu arte (2023). 2021eko irailetik aurrera, kanpo Idazkaritza Tekniko bat kontratatu da proiektua kudeatzeko, hau da, Etxearen proiektua diseinatzeko, kudeatzeko eta dinamizatzen laguntzeko.

2021ean, lehentasunezko zeregin hauek gauzatu dira:

- Proiektuaren estrategia eta komunikazioa berregituratzea eta Etxearen baitan txertatzea Jabetze Feministarako Eskola, prestakuntza-tresna gisa.
- Proiektuan diharduten kolektiboekiko aliantzak, komunikazioa eta parte hartzeko espazioak sustatzea, haien premiei erantzuteko ahal den neurrian: Sorginenean edo Sorginenearekin gauzak programatzen zituzten elkarte edo egitasmo feministak, etapa berri honekiko interesa agertu duten elkarteak.
- Eleen Ganbara liburutegi feministaren kudeaketa formalizatzea eta koordinatzea lankidetzaz hitzarmen baten bidez, Sorginenearen eskutik.
- Espazioen lagapena arautzea eta kudeatzea, barne-erregelamendu eta prozedura espezifikoekin bitartez.
- Identitate grafikoa diseinatzea eta komunikazio-kanpaina bat bultzatzea proiektua ezagutarazteko 2022an.

Eztabaida zein hausnarketa kritiko kolektiboa sustatzeko eta ahalduntzeko kolektiboko prozesuak bultzatzeko helburuekin bat eginez, 10 topagune landu dira. 7 talde/topagune abiatu dira, horien garapena eta hazkuntza bultzatzeko asmoz, ekintza-hausnarketa feministaren bidez. Parte-hartzaileen kopurua, guztira: 89 lagun (85 emakume eta 4 gizon).

Zazpi topaguneak Jabetze Feministarako Eskolaren markoan egindako jardueretatik abiatuta sortu dira, eta etapa berri bati ekingo diote Emakumeen Etxean, batetik, taldeko ahalduntzearekin segitzeko, eta, bestetik, aukera izan dezaten garatzeko eta autonomia handiagoa lortzeko.

Tertulia feministak, hainbat jatorritako emakumeen espazio feminista eta hirigintza feministari buruzko prozesuak diseinatuta daude jada, edo diseinuaren azken fasean bestela, eta 2022ko lehen hiruhilekoan jarriko dira martxan.

Gainera, Etxeko espazio kolektiboak Gasteizko taldeen eskura daude, baldin eta jarduerak antolatu nahi badituzte beren kabuz edo Emakumeen Etxearekiko lankidetzan, betiere Etxearen ildo estrategikoekin bat eginez.

2021eko azken hiruhilekoan 11 kolektibori laga zaie espazioa, eta 14 jarduera antolatu dituzte guztira. Horietako 8 behin bakarrik egitekoak izan dira, saio bakarrekoak, eta 6, berriz, jarduera jarraituak izan dira, hainbat saiotakoak (elkatruke- eta hausnarketa-prozesuen erakusle), eta era askotakoak. Erregistroen arabera, 149 parte-hartzaile izan dira (139 emakume, 7 gizon eta 3 ez-bitar).

Eleen Ganbara-Sorginenea Elkarte

Emakumeen Etxeko liburutegi feminista da Eleen Ganbara, Sorginenea Elkarteak kudeatzen du. Ezagutza feministaren eta historian emakumeek idatzitako lanen garrantzia azpimarratzen du, izan ere, literatura hori gutxietsi egin da tradizioan, baina bere espazioa izatea merezi du.

Eleen Ganbarako funtsak kudeatzeaz aparte –1.200 aletik gora–, Sorginenea Elkarteak zenbait jarduera antolatzen ditu espazioan, hala nola Mintzalagun feminista, Ilargi betea eta Hablando con nuestra librería saioak.

Horretaz aparte, elkarteak eta Emakumeen Etxeak hiru jarduera antolatu dituzte elkarlanean: *Voces de Chimalpopoca* liburuaren aurkezpena (Shukare Otero), Leihoa Inarosten erakusketa (Neffe Olaizola) eta gorputzaren poesiari buruzko lantegia, zeina bertan behera geratu baitzen COVID-19aren ondorioz.

Erregistroaren arabera, jarduera horietan 67 parte-hartzaile izan ziren guztira (59 emakume eta 8 gizon).

Kanbalatxe Feminista

Proposamen kolektibo honen helburua esperientziak, trebeziak eta ezagutzak trukatea da, pertsona bakoitzak jarduerari eskaini ahal dion denbora aintzat hartuz betiere. Denbora-banku hau ekonomia feministaren barruko proiektu bat da, eta herritar orok parte hartu dezake, betiere proiektuaren parte diren pertsonak errespetatzeko eta zaintzeko premiarekin. Urrian eta abenduan informazioa bildu da, elkarrizketak eginez eragile garrantzitsuei, eta Kanbalatxe feministaren proiektua diseinatu da gero; 2022ko urtariletik aurrera abiatuko da.

Ikerketa feministaren erakusleihoa

Ibilbide akademikoa hasi berri duten ikasleei zuzenduta dago proiektu hau, beren ikerlanak presio akademikorik gabeko espazio batean erakusteko aukera izan dezaten. Proiektu honek bidea ematen digu, halaber, genero-ikerketa akademikoa unibertsitateko zirkuluetatik kanpo ezagutzera emateko eta herritarrei hurbiltzeko. 2021ean, proiektua diseinatu da, eta 2022an jarriko da martxan.

Erakusketak

2021ean hiru erakusketa egin dira Etxean:

- Viñetas de Tortas y Bollos. Cómics Lésbicos desde dos Orillas. 2021-6-1 / 2021-6-10
- “Leihoa Inarosten”; antolatzaileak: Sorginenea eta Etxea
- “Ni chachas ni domesticadas, somos mujeres trabajadoras”; antolatzailea: MunduBat, Berdintasunerako Zerbitzuaren dirulaguntzarekin.

Txikigune

Emakumeen Etxeak haurtzaintza-zerbitzua eskaintzen du Etxeko bertako jardueretan. Era berean, Etxean gauzak antolatzen dituzten kolektiboek ere Txikigunea erreserbatzeko eta erabiltzeko aukera eskaintzen die, libre baldin badago.

2021ean bi aldiz eskatu dute haurtzaintza-zerbitzua.

Bisita gidatuak

Herritarrek Emakumeen Etxea gertuagotik ezagutzeko xedez, bisita gidatuak eskaini dira, eskatu dituenarentzat; bisitetan, proiektuari, zerbitzuari eta jarduerari buruzkoak azaldu dira.

Bi bisita egin dira preso dauden emakumeen bi taldeekin, FEDEAFES Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioko kideak denak ere. Parte-hartzaileak: 13 emakume.

Arreta eta kontsultak

Etxea zabalik dagoen ordutegian, dinamizatzaileek kontsultei erantzuten diete: informazioa eta orientazioa ematen dute, edo Emakumeen Etxeko zein bertatik kanpoko baliabideetara bideratzen.

2021eko irailetik abendura, 39 kontsulta izan dira; guztira, 68 pertsona: 56 emakume eta 12 gizon (kontsulta batzuk pertsona bateko baino gehiago taldeek egin dituzte).

39 kontsultei erreparatuta, hainbat gai azaldu dira: % 23k (9 pertsona) Etxearen proiektua ezagutu nahi zuten; eta beste % 23k (9), berriz, zehazki emakumeei eskainitako baliabideez galdetu. Bi kategoria horiek kontsulta guztien % 43 osatzen dute. Gainerako kontsulten puskarik handiena, aldiz, espazioak eskatzeko prozedurari dagokio: % 10 (4); Etxeko jardueri: % 8 (3); ikerketa akademikoari buruzko informazioari: % 8 (3); Indarkeria matxistei: % 8 (3); Etxearekin loturarik ez duten kontsultei: % 8 (3), eta Eskolako jardueri buruzko informazioari: % 3 (1).

Indarkeria matxistari buruzko 3 kontsulta hartu dira. Hiru kontsultak lehen arretari lotutakoak izan dira, eta ez zegoen salaketarik polizian. Lehen kontsultan, adin txikikoak daude tartean (biktima eta erasotzailea). Ez dakigu adin txikikorik tartean ote den beste bi kontsultetan.

PARTE-HARTZEA ETA ALIANTZAK

2021ean, Etxegune, Emakumeen Etxeko kontsultarako eta parte-hartzerako espazioa, diseinatu da, eta hura sortzeko oinarriak adostu.

Apirilean eta maiatzean, kolektiboekin harremanetan jarri ginen informazioa emateko; ondoren, ekainean eta uztailan, bi aldeko bilerak antolatu ziren 14 talderekin, informazioa emateko, ideiak trukatzeko eta Etxean parte hartu nahi ote zuten jakiteko.

2021eko irailaren 28an, bilera bat antolatu zen, aurreko prozesuan interesa erakutsitako talde guztiekin. 26 lagunek parte hartu zuten, 13 talderen ordezkari gisa. Etxearen Proiektua bultzatzeko interesa dago, parte-hartzerako espazio bat abiatu nahi da, informazioa trukatzeko, etxeko taldeen artean sinergiak sortzeko eta proposamenak batera sortzeko.

Plan operatiboa egiteko proposamenak bildu dira, eta espazioaren funtzionamenduaren oinarriak diseinatu; helburua 2022ko otsailean martxan jartzea da.

KOMUNIKAZIOA

Fase berriaren hasieran, besteak beste, honako alderdi estrategiko hau identifikatu zen: komunikazioa indartu behar zen. Batetik, herritarrei jakinarazi nahi zitzairen Etxeko jarduerak martxan jarraituko zutela kudeaketa aldatu arren; bestetik, berritasunak jakinarazi nahi ziren, bereziki Etxearen barruan txertatu dela Jabetze Feministarako Eskola.

Horretarako, honako tresna hauek jarri ziren martxan:

- **Logo berria:** logo berri bat sortu da, eta horren bitartez erakutsi nahi da ezen, jabetze feministarako espazio honetan, edukia bezain garrantzitsua dela edukiontzia.
- **Sare sozial berriak:** Emakumeen Etxeak kontu berri bat dauka Instagram sare sozialean, @EmakumeenEtxeaVG. Kontu honen bitartez, erabiltzaile gehien dituen sare sozialetako batera hurbildu nahi dugu, hain zuzen ere erabiltzaile asko gazteak direlako, eta sektore estrategiko horren gaineko eragina handitu nahi dugulako.
- **Web:** Etxearen webgunea sortu da udal etapa berri honetan, eta bere espazio propioa du Udaletxearen webaren barruan: www.gasteiz.org/emakumeenetxea. Web horretan, hainbat konturi buruzko informazioa biltzen da: proiektua, jardueren agenda, zerbitzuak, talde egonkorak eta Jabetzerako Eskolako jarduerak.

Komunikazio-tresna berriak abiatzeko prozesuan, **beste bi premia** identifikatu dira, 2022an gauzatzekoak:

- **Identitate bisual** propioa sortzea, Etxeko komunikazio-ekintzei koherentzia emateko, baina, aldi berean, Etxeko proiektuak nor bere aldetik identifikatzeko eran.
- Etxearen proiektuaren zabalpena indartzea, komunikazio-kanpaina baten bitartez.

2XE: LGTBI PERTSONEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

#Feminismoantzel ildoaren barruan –Jabetze Feministarako Eskolak 2020-2021 edizioan 18 urtetik beherako pertsoneri zuzendutako prestakuntza-ildoak–, hiru jarduera antolatu dira:

- **Mari, Meri eta Lari**, Eidabe konpainiaren antzezlanak; genero-binarismoa zalantzan jartzen du. 3 urtetik gorako umeentzat.
- **Cola de sirena**, formatu txikiko ikuskizuna, txotxongiloekin eta objektuekin, transgenerismoari buruzkoa. Ruth García Ruzen eskutik, Alba Barbé i Serra eta Sara Carro Ibarraren ipuinean oinarrituta –ikuskizunaren izen berekoa–. 3 urtetik gorako umeentzat.
- **Lur**, Xake Produkzioak konpainiaren antzezlanak, trans identitateei buruzkoa. 7 urtetik gorako umeentzat.

Cola de Sirena eta *Lur* emanaldiak maiatzaren 17ko programazioaren parte izan ziren –LGTBIfobiaren Kontrako Eguna–; haurrengana iristeko, arte eszenikoen aldeko apustua egin da, zailagoa baita beste formatu batzuen bidez publiko horretara iristea, esaterako ikastaroen eta hitzaldien bidez –helduengana iristeko erabiltzen ditugu halakoak–. *Lur*, azkenean, ez zen egin, aktoreetako bat ondoezik zegoelako, eta konpainiak ez zuelako lortu garaiz ordezkatzeko.

LGTBI kolektiboek Gasteizko LGTBI memoria historikoa berreskuratzeko egindako egitasmoak babestu nahi ditu Berdintasunerako Zerbitzuak; horretarako, ikerlan bat egin da, aztertuz zein izan den mugimendu feministaren eta LGBTI mugimenduaren memoria hirian, trantsizioaz geroztik. Batetik, borroka horien garrantzia aitortu nahi da, emakumeen eta LGBTI pertsonen giza eskubideak hobetzen edo lortzen lagundu duten heinean. Bestalde, inspirazio- eta erreferentzia-iturri izan daitezkeen lortu nahi da, mugimenduen hausporik ez galtzeko, eta garairik garai bultzatzen dituzten aldarrikapenak eta moldeak gidatzeko.

Udal-ikerlan honetan, batera bildu nahi dira, lehen aldiz, mugimendu feministaren zein LGBTI mugimenduaren memoria, bien borroka etengabe eta ezinbestean bat etorri baitira.

Histeria elkarteak koordinatu du ikerlana, izan ere, *Hara! Agendan* bildutako jarduera batzuetako idazkaritza teknikoak da. 2021ean, bibliografia aztertu zuten, pertsona garrantzitsuei elkarrizketak egin, eta lehen zirriborroa osatu zuten.

Sentsibilizazio-kanpaina bat egin da, **sexu- eta genero-aniztasunari helduz Gasteizen**; horretarako, spot bat egin da, bi helbururekin: 1. Aurretik kanpoko (emakumea/gizona/heterosexualitatea) genero eta desira gehiago daudela ikusgai egitea; eta 2. Zisheteroaraua zalantzan jartzea, SGAREN eremu deskriptiboa gainditzeko modu gisa, eta agerian jarri nahian sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik izaten diren desberdinkeriak eta diskriminazioak.

Histeria elkarteak koordinatu du ekintza hori, eta Al Borde Films ekoiztetxearen esku utzi du ekoizpena. Bestalde, ikusguneak aholkularitza eskaini du hainbat auziri dagokionez, eta beren lankidetzak guztiz garrantzitsua izan da. Gidoia prest zegoen 2021aren amaierarako; 2022ko urtariletik aurrera ekoitzi, eta ondoren zabaldu egingo da: Berdintasunerako Zerbitzuaren sare sozialen bitartez zabalzea aurreikusten da.

2020an, **indarkeriari aurre egin dieten LGTBI pertsonen baliatutako erresistentzia-estrategiak ikusgai egiteko** xedez –orokorrean erabilitakoak eta zehazki konfinamenduak erabilitakoak– honako argitalpen hau sortu zen: *"Arnasbideak. Gasteizko LGTBI erresistentzien istorioak"*. Pikara Magazinek egin zuen, Histeriak koordinatuta; bestalde, Ikusgune Gasteizko LGBTI+fobiaren Aurkako Behatokiaren laguntza jaso zuen proiektuak, profilak identifikatzeko eta elkarrizketarekin harremanetan jartzeko.

2021ean, euskarara itzuli, ilustratu, diseinatu eta maketatu egin zen; ondoren, 100 ale inprimatu ziren gaztelaniaz, eta 50, berriz, euskaraz. Argitalpenaren ezaugarriak aintzat hartuz, eleberriak inprimatzeko erabiltzen diren irizpideak erabili ziren, eta ez, aldiz, gidak, protokoloak edo bestelako kontsulta-materialak inprimatzeko erabiltzen diren modukoak.

3XE: GASTEIZEN BERDINTASUNERANTZ ABIATZEAREKIN DAGOEN GIZARTE-KONPROMISOA BABESTEA

Genero-berdintasunaren arloan jarduerak eta proiektuak garatzeko Berdintasunerako Zerbitzuak urtero ematen dituen dirulaguntzen deialdiaren harira, oinarri espezifikoak berrikusi dira 2021ean, sexu-eta genero-aniztasunaren ikuspegia sartzeko. Besteak beste, emakume-elkarteen eta talde feministen atalean, LGBTI kolektiboa sartu da, zeina, orain arte, erakunde mistoen atalean baitzegoen. Halaber, 5.1 puntuaren formulazioa aldatu da –“Dirulaguntzen xede diren proiektuak”–, modu argiagoan azaldu nahian zer helburu bete behar dituzten aurkeztutako proiektuek.

2021ean 35 eskaera jaso dira, eta 15 proiekturi eman zaie dirulaguntza. Beste 7 proiektuk ez zuten dirulaguntzarik jaso: puntuazio minimoa lortu arren, ezin izan zuten laguntzarik eskuratu, deialdiko diru-kopurua agortuta zegoen-eta.

Berdintasunerako Zerbitzuak **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna** ospatzen du urtero; orain arteko lorpenak ospatzen dira, baina, batez ere, genero-berdintasuna aldarrikatzen da, eta emakumeen hainbat arlotan jasaten duten desberdinkeria agerian jartzen.

2021eko Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, instituzioen arteko kanpaina bat garatu zuten Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak, lankidetzaz hitzarmen baten bitartez; honako lelo hau aukeratu zuten: “Bizitzarako FUNTSEZKOAK? Aitorpena, Duintasuna, Erantzukidetasuna/¿ESENCIALES para la vida? Reconocimiento, Dignificación, Corresponsabilidad”.

Lelo horrekin bat eginez, berdintasunarekin duen konpromisoa berretsi nahi izan zuen Udalak, herritarrei dei eginez, bai eta instituzio publikoei eta erakunde pribatuei ere, bizitzari eusteko balio duten eta nagusiki emakumeek egiten dituzten lanen garrantzia aitortzeko. Era horretako lanak, ondotox dakigun moduan, ikusezinak eta prekarioak izaten dira maiz, eta hori are nabarmenagoa izan da COVID-19 gure bizitzara iritsi den unetik.

Halako lanen garrantzia aitortzeaz gainera, kanpainaren bitartez beste helburu batzuk lortu nahi ziren orobat: funtsezko lan feminizatuak eta prekarizatuak baldintza duinetan egiteko premia azpimarratu nahi zen, bai eta zaintzen erantzukidetasun komunitario publikoa garatzeko premia ere. Azken horri dagokionez, kanpaina modu espezifikoan zuzendu zitzaizen gizonei, herritarrei oro har eta instituzioen erantzukizunari.

Martxoaren 8ko Kanpainaren barruan 9 jarduera antolatu ziren:

- Hitzaldia: *Locura, apoyo mutuo y feminismos: alianzas transformadoras a partir de nuestras vulnerabilidades compartidas* (martxoak 2). 29 pertsona joan ziren: 27 emakume eta 2 gizon.
- Lantegia: *Del capitalismo racista a las migraciones y exilios. Una mirada decolonial* (martxoak 3, 10, 17 eta 24). Parte-hartzaileak: 8 emakume eta pertsona ez-bitar bat.
- Hitzaldia: *¿Ahora que sí nos ven? Experiencias de activismo americano en Argentina* (Martxoak 9. Online). 50 pertsonak parte hartu zuten streaming bidez.
- Entre3 zineforuma: *Queen Lear* (martxoak 11). 56 emakumek eta 8 gizonek parte hartu zuten.
- Hitzaldia: *Mujeres de cine. El relato audiovisual desde una perspectiva feminista* (martxoak 16). María de Maeztu Forum Feminista antolatzaile. Hitzaldia online egin zen, eta 147 lagunek parte hartu zuten guztira.
- Gauekoak lantegia: *Ta y Tantxs: begirada feminista 30 minututan* (martxoak 27). Organizado por el servicio de Juventud. Participaron 25 mujeres y 2 hombres.
- *“Gorria”* ikuskizuna. 63 emakume eta 10 gizon joan ziren.
- *“Mari, Meri eta Lari”* antzezlanak, lehen ere aipatu duguna. 17 emakume eta 12 gizon joan ziren.
- *Emakumeei eta zainketei buruzko argazkien* erakusketa “Pilar Aróstegui” Udal Artxiboan. Ez dago parte-hartzeari buruzko daturik.

[Jabetze Feministarako Eskolaren Programazioa 2020-2021](#) dokumentuan informazio gehiago jaso dezakezue aipatutako jarduerari buruz.

05

4. ILDOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA

4. ILDOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA

Ildo honetan, hirian gertatzen den indarkeria matxistarekin lotutako udal lana aipatuko da, eta, batez ere, Berdintasunerako Zerbitzuaren eskumenei dagokiona.

1XE: INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOARI, SENTSIBILIZAZIOARI ETA SALAKETARI LAGUNTZEA

INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIORAKO EREDU BAT ABIATZEA UDAL-EKINTZAREN OSOTASUNEAN

Indarkeria matxistak giza eskubideak urratzen ditu, eta batik bat emakumeei eragiten dien genero-desberdinkeraren adierazpenik larriena da. Indarkeria matxistaren prebentzioan eta deuseztapenean aurrerapausoak egin diren arren, gure gizartearen arazo handietako bat da oraindik ere.

Emakumeen aurka gauzatzen da batez ere, bizitzako arlo guztietan, baina orobat eragiten die heteropatriarkatuak ezarritako eredutik kanpo dauden genero-orientazioa edo -identitatea duten pertsoneri; hala, eskubideen eta aukeren berdintasuna izateko garaian, oztopo handiak ezartzen dizkie halako pertsoneri.

Indarkeria matxista kontrol-tresna oso boteretsua da, eta genero-desberdintasunak mantentzeko balio du arlo sinbolikoan ere; hori aintzat hartuta, Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta prebentzioa lantzen ditu, indarkeria sortzen eta mantentzen dute egiturazko desberdintasunetan eragiteko xedez, eta, ahal den neurrian, indarkeria deuseztatzeko bidean urratsak eginez. Horretarako programa nagusietako bat **Libre Izan Nonahi! Indarkeria Matxista Prebenitzeko Udala Estrategia** da, 12-30 urte bitarteko gazteei zuzendua, eta 5 urteko ibilbidea egin duena.

Horren harira, 2021ean, Libre Izan Nonahi! Prebentzio Estrategia honako ekintza hauen bidez gauzatu zen:

1- ADSIS Fundazioaren Oinarrizko Lanbide Heziketako programako ikasleentzako autodefentsa feministako lantegia

ADSI Fundazioko Oinarrizko Lanbide Heziketako programako zenbait ikaslek, 16 eta 18 urte bitartekoak denak, Autodefentsa Feministako ikastaro batean parte hartu zuten (aurrerantzean, AF), urtarrilaren 8an eta 15ean eta otsailaren 12an, Emakumeen Etxean; programa honen hirugarren edizioa da jarraian.

AF emakumeen eta neskatoen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko tresna bat da. Nork bere burua defendatzeko teknika fisikoak ikasteaz gain, lantegi honetan parte hartutako 10 ikasleei tresnak eskaini zitzaizkien beren eguneroko bizitzan bizi dituzten desberdinkeria egoerak aztertzeke, jasaten duten indarkeria sexista nondik datorren ulertuta. Horrez gain, ikasleek indarkeria horiei aurre egiteko teknika emozionalak, fisikoak eta kognitiboak landu zituzten. Hori guztia taldean egiten da; hala, erantzuteko estrategia modu kolektiboan bilatuz, beren arteko ahizpatasun-sarea indartu nahi da, baita beste emakume batzuekiko duten sarea sendotu ere. Hona hemen lantegi teoriko-praktikoaren helburuak:

- Indarkeria matxistak aztertzea, eta gure bizitzetan eta inguruan agertzen direnean identifikatzea.
- Parte-hartzaileek beren buruan duten konfiantza garatzea.
- Biktima-sentipena gainditzea, eta parte-hartzaileak gai senti daitezela eguneroko bizitzan jasaten dituzten edo beharbada jasango dituzten indarkeria sexistako egoerei aurre egiteko.
- Erasoei aurre egiteko defentsa-teknika fisikoak zein psikologikoak ikatea.

Aurreko edizioetan ez bezala, lantegiak 12 ordu iraun zuen, eta ez 8 –hasiera batean iraupen hori aurreikusitako arren–. Helburua: ikasleek ekarritako kontuak eta zalantzak lantzea, eta aurreikusitako edukien aurkezpena bukatzea, lantegiaren helburuak betetzeko moduan.

2- Sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzeko jarduera ibiltaria aisialdi-guneetan

Nerabe eta gazte gasteiztarren artean indarkeria matxistaren prebentzioa eta horren gaineko sentsibilizazioa lantzen segitzeko xedez, eta “Udan ere, Libre Izan Nonahi” leloarekin bat eginez, 2021ean jarduera bat diseinatu eta abiatu zen, Prebentzio eta Sentsibilizaziorako Talde Ibiltariarekin jaietan lortu nahi diren helburuak betetzeko; beste formatu batean izan zen, noski, Jaiak bertan behera geratu baitziren.

2020an, jarduera ibiltaria aldizkako 10 asteburutan egin zen; 2021ean, ordea, jarduera gazteen eta nerabeen errealitatera ere gehiago hurbiltzeko ahalegina egin zen. Batetik, modu ibiltarian, 5 hezitzailek esku hartu zuten Gamarrako, Estadioko eta Mendizorrotzako igerilekuetan; bestalde, bi hezitzailek –emakumea bata eta gizona bestea– egun zehatzetan esku hartu zuten, kaleko jarduera ibiltariaren formatuan.

Bai igerilekuetan eta bai kalean ere, gazteekin hitz egin eta jardun zuten hezitzaileek, betiere gazteek hezitzaileei jakinarazi nahi izan zizkieten edukien, tonuen eta esperientzien harira; helburua, berriz, indarkeria sexista eta bestelako indarkeria matxista batzuk, hala nola LGTBIfobia, sostengatzen dituen balio- eta sinesmen-sisteman eragitea zen. Esku-hartzean, ideia eta kontzeptu sexistak eraldatzen laguntzen duten mezuak azpimarratu ziren, eta, gainera, sexu-eredu hegemonikoari buruzko prebentzio-mezuetan sakondu zen, hala nola sexu-harremanetako genero-roleri, mugak jartzeari eta sexu-harremanetako botere-harremaneri buruzko mezuetan. Halaber, gizon gazteek indarkeria matxistaren aurrean modu aktiboan jardutea sustatu zen, eta jarrera zein praktika matxisten konplize ez izatearen garrantzia azpimarratu zen orobat. Sentsibilizazioarekin lotuta merchandisinga banatu zen, eta batzuetan horrek erraztu egin zuen taldeekin mintzatzea. Besteak beste, honako material hauek banatu ziren: biserak, igeri egiteko txanoak, maskara eramatekoak, lanyardak, informazio-eskuorriak...

Gamarrako, Estadioko eta Mendizorrotzako igerilekuetako esku-hartzea uztailaren 15ean, 16an, 19an, 20an, 21ean eta 22an egin zen, arratsaldez; Gamarran, eguneko 5 orduz egin zen, eta Estadioan eta Mendizorrotzan, berriz, eguneko 2 ordu eta erdiz. Gainera, Gamarrako igerilekuetan karpa bat ere jarri zen, intereseko materialak biltzen zituena, nahi izanez gero informazio gehiago eskaintzeko eta arreta intimoagoa eskaintzeko karpara hurbildu eta berek zein ingurukoek bizi izandako indarkeria matxistako egoerak azaldu nahi izan zituztenei.

Esku-hartzeko 6 egunetan, **230** jarduketa egin ziren guztira, neska-mutilen taldeekin (121, Gamarran). Zehazki, **101** emakume-taldetan, **58** talde mistotan –emakumeak eta gizonak– eta **71** gizon-taldetan esku hartu zen. Gamarran, beste bi lekuetan halako bi ordu eskaini zitzaizkion jarduerari; hala ere, parte-hartzea oso antzekoa izan zen 3 espazioetan.

Guztira, **707** pertsonarekin jardun zen: **394 neska**, eta **313 mutil**. 707 pertsona horien artean, gehienek 12 eta 17 urte bitarte zituzten.

Kaleko jarduera ibiltaria. Otsailean, uztailan, abuztuan, irailean eta urrian, 11 egunetan guztira, bi kale-hezitzaile ez-normatibo –bata emakumea eta bestea gizona–, hiriko kale eta parke batzuetan barrena ibili ziren, jarduera ahalik eta gazte gehienei helarazteko eta, horrela, ikuspegi pluralago eta interseksionalago batetik aritzeko. Helburua, betiere, indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea izan zen, gazteen talde naturalekin eta beren aisia-guneetan. 2020ko ibilbide berak egin ziren, Zaramaga ingurua gehituta.

2020an bezalaxe, kaleko bi hezitzaileek LABIk ezarritako unean uneko baldintzen arabera egokitu zituzten esku-hartzeak.

Esku-hartzearen 11 egunetan, 148 jarduketa egin ziren guztira, hainbat gazte-talderekin. Zehazki, 75 emakume-talde, 46 talde misto –emakumeak eta gizonak– eta 28 gizon-talde izan ziren esku-hartzeen xedeak. Guztira, 559 pertsonarekin jardun zen: 348 neska, 210 mutil eta genero fluido gisa identifikatutako pertsona bat.

Gazteek kaleko hezitzaileei jakinarazi nahi izan zizkieten edukiei, tonuari eta esperientziei buruzkoak izan ziren esku-hartzeak, indarkeria sexista eratzen eta sostengatzen duen balio- eta sinesmen-sisteman eragiteko xedez betiere. Aipagarriak dira honako datu hauek:

- Esku hartutako pertsonak ez zekiten zer udal-baliabide dagoen indarkeria matxistaren kasuei erantzuteko edo horiek bideratzeko.
- Emakume-taldeetan eta talde mistoetan diskurtso berdinzaleak dira nagusi; mutil-taldeetan, aldiz, diskurtso matxistak gailentzen dira.

- Kaleko esku-hartzean, oro har, jarrera positiboa erakutsi dute taldeek; parte hartzeko interesa eta gogoia agertu dituzte.

3- Libre Hezi Nonahi lantegiak

Azken urteotan egin izan ohi dugun bezala, 2021eko azken hiru hilabeteetan indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazioa pizteko eta prebenitzeko lantegiak eman ziren hezkuntza arautuan: [Libre Hezi Nonahi lantegiak](#). Eduki-kopurua handitu zen, eta 2 prestakuntza-saio ezarri ziren, ikasleen tutore diren irakasleei zuzenduta.

Hala, gela bakoitzari eskainitako lanorduen kopurua handitu zen, 4 ordutik 10 ordura, eta bi sakontasun-maila finkatu ziren (hastapenak eta sakontzea). Ondorioz, zentro parte-hartzaileek bi ikasturtez jarraian parte hartzeko konpromisoa hartzen duten beren gain (20 ordu guztira). Lantegiaren 10 orduetatik 8 ikasleei zuzenduta daude, eta beste biak, berriz, irakasleei.

Hau da lantegiaren helburua: indarkeria matxistaren gaineko kontzientziarazioa eta prebentzio sustatzea gazteen artean, hezkuntza-sistema arautuan, eta Estrategiatik eratorritako ekintzetan parte har dezaten bultzatzea. Irakasleei dagokionez, berriz, bi xede hauek lortu nahi dira: irakasleak gai izan daitezela indarkeria matxistako egoerak identifikatzeko ikasgelan, eta, halaber, gai izan daitezela (hainbat tresna eta baliabideren bitartez) halako egoerei aurre egiteko, ikasleekin egindako lantegietako balorazioetatik eta irudipenetatik abiatuta.

12 lantegi eskaini dira 3 hezkuntza-zentrotan: 2 zentro publiko, eta itunpeko zentro bat; guztira, 268 lagunek parte hartu dute (140 emakume gazte eta 128 gizon gazte). 12tik 11 lantegiren kasuan, DBH 3. mailako ikasleak dira; gainerakoak, berriz, Gizarte Hezkuntzako goi-mailako gradua egiten ari dira Lanbide Heziketan. 12 lantegiak euskaraz izan dira.

4- “MaitEzmindu/Violencia no es amor”, irakasleei zuzendutako saioa (2020-2021 ikasturtea)

2020ko urriaren 26an, "Maitezmindu/Violencia no es amor" lantegia antolatu zen irakasleentzat. Lantegiaren helburua irakasleei beren ikasgeletan gertatzen diren indarkeria matxistaren egoerak detektatzen trebatzea eta egoera horiei aurre egiteko tresnak ematea izan zen. Saioa 2021eko martxoaren 9ra atzeratu zen, bi irakaslek baino ez baitzuen izena eman bertan parte hartzeko. 2021ko saioan, azkenean, irakasle batek bakarrik parte hartu zuen.

5- Taller sobre Ligoteo sano

“Libre Izan Nonahi!” Estrategiaren harira, Berdintasunerako Zerbitzuak sentsibilizazio-prozesu bat garatu zuen ligoteo osasuntsuari eta errespetuzkoari buruz eta, funtsean, indarkeria matxistaren prebentzioari buruz.

Prozesu horren ondorioz, lantegi bana antolatu zen 2021eko otsailaren 5ean eta 26an eta martxoaren 12an, El Pilar Gizarte Etxean.

Lantegi horietan, 2020ko azaroaren 21eko “Musika Indarkeria Matxistaren Kontra” Jardunaldiaren haritik tiraka, ligoteo osasuntsurako espazio posible bat lantzen hasi nahi zen, kontuan hartuz musikak garrantzia handia duela espazioak sortzeko eta estereotipoak mantentzeko garaian. Azken batean, ligoteoan izaten diren indarkeria matxistei buruz hausnartzea zen helburua. Aldi berean, balio- eta sinesmen-sistemaren eragina azpimarratu nahi zen, egunerokoan sortzen dituen egoerak, alderdiak eta premiak identifikatu, eta parte-hartzaileen artean errespetuzko eta berdintasunezko jarrera positiboak eta indarkeria matxistaren aurkako jarrera sendoak hauspotu. Halaber, jende gaztea protagonista izatea lehenetsi zen, eta ligoteo osasuntsuaren dekalogo bat sortzen lagundu zen (Topaketan aurkeztu zen gero), hainbat irizpide aintzat hartuz: hala nola aniztasuna ontzat jotzea eta indarkeria matxistaren adierazpen oro arbuatzea. Gainera, playlist bat osatu zen YouTuben (Libre Izan Nonahi), ligoteo osasuntsua eta errespetuzkoa bultzatzen duten kantuekin: <https://v-g.eus/3tKafxQ>.

Otsailaren 5eko saioan 10 neska eta 5 mutil izan ziren. Bigarren saioan, berriz, zeina otsailaren 16an egin baitzen, 9 neska izan ziren (horietako 4k ez zuten aurreko saioan parte hartu), eta bi mutil; azkenengo saioan, martxoaren 12koan, hiruna neska-mutil izan ziren.

6- Libre izan Nonahi Topaketa. Ligoteo osasuntsu, errespetuzko eta arduratsuaren alde

2021eko azaroaren 19an, Gazteria zerbitzuarekin elkarlanean, "Libre Izan Nonahi Topaketa. Ligoteo osasuntsu, errespetuzko eta arduratsuaren alde" jarduera antolatu zen, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

37 lagunek eman zuten izena: 24 emakume eta 13 gizon; horretaz gainera, beste 5 pertsona etorri ziren, aurrez izena eman gabe.

Bestalde, adin txikiko beste bi pertsona etorri ziren, 8 eta 10 urtekoak, biak emakumeak. Parte-hartzaile gehienak 11 (?) eta 15 urte bitartekoak ziren, eta 18 urtetik gorako 6 lagun zeuden. Guztira, 43 gazte eta haur bertaratu ziren, antolakuntzako langileez eta kaleko hezitzaileez aparte.

Topaketa Goiuri Jauregian antolatu zen, eta hainbat artista arabarrek parte hartu zuten: Kai Nakai, Dupla, Annekdotas eta Paula Fernandez influencerra. Indarkeriarik gabe eta errespetuz ligatzeko teknikari buruz hausnartu zen, Gasteizko gazteek lantegi batean landutakoei buruz hain zuzen, aurreko atalean aipatu bezala. Topaketan hainbat jarduera egin ziren, modu osasuntsuan, askean eta errespetuzkoan ligatuz gozatzea bultzatzeko. Besteak beste, nabarmentzekoak dira hauek:

PRESTAKUNTZA-LANTEGIAK

1. Autodefentsa Ziberfeministako Lantegia nesKentzat. Parte-hartzaileak: 27 neska eta pertsona gazte ez-bitar bat.
2. Ligoteo osasuntsuko tailerra mutilentzat. Parte-hartzaileak: 14 mutil.

MODU OSASUNTSUAN LIGATZEKO BIDEO-AHOLKUEN AURKEZPENA

Lantegien ostean, modu osasuntsuan ligatzeko aholku bideoa aurkeztu zen, euskaraz eta gaztelaniaz egindakoa. Bideo horretan, Gasteizko gazteek aholkuak eta mezuak ematen dituzte: 5. atalean aipatutako Ligoteo osasuntsuaren lantegian parte hartutako gazteak dira, hain zuzen. Gasteizko Udaleko Gazteria Sailak finantzatu zuen bideoa.

MAHAI-INGURUAK:

Aurkezpenaren ostean, 2 mahai-inguru antolatu ziren. Paula Fernandez influencerrak dinamizatu zituen, eta Kai Nakaik, Annekdotasek eta Duplak parte hartu zuten.

1. Mahaia: Digitalki ligatzea eta ziberbortizkeriaren prebentzioa. Digitalki ligatzeari eta ziberbortizkeriei buruz hitz egin zen; besteak beste, pertsonaren gorpuzkerak ligatzeko orduan zer-nolako eragina duen aipatu zen. Publikoaren erantzuna oso positiboa izan zen, eta ikus-entzuleetako batzuek eztabaidan parte hartu zuten.

2. Mahaia: Indarkeria musikan eta sare sozialetan. Gonbidatuek nork bere esperientziei buruz hitz egin zuten, musikako eta sare sozialetako bortizkeriak ahotan hartuz; halaber, halakoei aurre egiteko estrategiak proposatu zituzten. Beste gai honi buruz hitz egin zen orobat: influencerrak eta artistak oso garrantzitsuak dira jende gazteak indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaz kontzientzia hartzeko, eta aldaketaren aktibista gisa.

Mahai-inguruak amaitu ostean, gonbidatuek hainbat abesti eskaini zituzten, eta argazkiak atera zituzten, hala nahi zuenarekin, Libre Izan Nonahi photocallean.

2021ean Libre Izan Nonahi! Estrategiaren barruan egindako azken ekintzetako bat izan zen, eta, horrez gainera, Berdintasunerako Zerbitzu honek Azaroak 25, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako jardueretako bat izan zen.

7- Autodefentsa feministako talde egonkorra 13-15 urte bitarteko neskontzat, euskaraz

Autodefentsa Feministako lantegiak eta taldeak dira indarkeria matxistaren prebentziorako tresnarik eraginkorrena. Nerabeak prestatuz, haiek berak gai izango dira indarkeria identifikatzeko, eta baliabideak izango dituzte halakoei aurre egiteko. Talde honetan, 11 parte-hartzaileek teknika fisikoak eta psikologikoak ikasi zituzten, eta, talde-lanaren bitartez, beren autoestimua landu zuten, eta seguruago sentitzen dira, beren arteko babes-sareak indartzen baitira. Lantegia 2020ko urriaren 3an eta 2021eko maiatzaren 8an antolatu zen.

8- Autodefentsa feministako bi lantegi, 10-13 urte bitarteko neskontzat

Bi lantegi hauek hainbat xede zituzten: neskek beren ahalduntzea eta autoestimua lantzea, eta beren gorputzari buruz hausnartzea, biktima-rola gaindituz eta beren kabuz egoera arriskutsuei aurre egiteko gai direlako sentipena landuz.

Lehenengo lantegia urtarrilaren 16an eta 23an antolatu zen, eta 17 neskek parte hartu zuten. Bigarrena, berriz, azaroaren 20an eta 27an izan zen, eta 14 neskek parte hartu zuten.

Autodefentsa espazioak Emakumeen Etxearen markoan egiten dira, lehenago ere esan dugun moduan.

9- Indarkeria matxistaren gaineko prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatzeko udal-estrategiaren Sailarteko taldea

Estrategiaren sailarteko taldea –2018tik dago martxan– hainbat udal zerbitzuek osatzen dute: beren programen edo proiektuen bitartez gazteen artean indarkeriaren prebentzioa edo genero-berdintasuna lantzen dutenek, hain zuzen. Taldearen helburua gidalerro komunak finkatzea da, gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko lanari dagozkion programak eta proiektuak gidatzeko balio dezaten.

2020an, taldeak ez zuen biltzeko aukerarik izan Covid-19aren ondorioz; 2021ean, berriz, bi aldiz bildu da: indarkeria matxista prebenitzeko aurreikusitako eta antolatutako jarduerari buruz mintzatu ziren. Taldeko kideak aldatu egin direnez, honako gai hauek landu ziren, besteak beste: Estrategiaren marko teorikoa eta indarkeria matxistaren kontzeptualizazioa eta tipologia, sexu-generoaren aniztasunari buruzko sarrera labur bat barne. Halaber, erronkak, zailtasunak, aukerak eta proposamenak identifikatu ziren, Taldeko zerbitzuetako ekintza edo programa bakoitzari dagokionez. Talde honetako kideak dira honako zerbitzu hauek: Haurrak eta Familia, Bizikidetzeta eta Aniztasuna eta Gizarte politika, adineko pertsonak eta haurrak saileko talde teknikoko pertsona bat; Berdintasunerako Zerbitzua da taldearen burua.

10- Estrategiaren komunikazioa

Jada esanda dugun bezala, sare sozialetako kontuak erabili dira “Libre Izan Nonahi” Estrategiaren jarduerak eta mezuak udalerriko gazteen artean zabaltzeko: Berdintasunerako Zerbitzuaren Facebook (Berdintasuna VG) eta Twitter (@VG_berdintasuna), eta Instagram (@libreizannonahi).

2020an bezala, astean bi bider argitaratu zen edukiren bat: zehazki, asteartez eta ostiralez, eguerdian. Gainera, 2020ko azaroan, YouTubeko kanala (Libre Izan Nonahi) erabili zen sentsibilizazio-tresna gisa. Kantu feministen zerrenda bat argitaratu zen, eta, halaber, “Modu osasuntsuan ligatzeko aholkuen” bideoa, azaroaren 19ko Topaketan estreinatutakoa.

Facebook izan zen elkarreragin-jarduera gutxien izan zituen sare soziala. Guztira, 82 argitalpen. Bestalde, Twitterren 113 argitalpen izan ziren, eta Instagramen, berriz, 97.

Instagramen gertatu dira elkarreragin-jarduera gehien; hori dela-eta, sare sozial hori elikatzen jarraitzeko apustu argia egingo dugu.

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Urteroko sentsibilizazio-eta salaketa-kanpaina diseinatzea eta abiatzea.

Indarkeria matxistak giza eskubideak urratzen ditu eta genero-desberdinkeraren adierazpenik larriena da; horregatik, haren gaineko prebentzio- eta sentsibilizazio-lana bultzatzen segitu behar da urte osoan, eta ez bakarrik azaroaren 25ean, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean.

Ezinbestekoa da, gainera, indarkeria matxistari koherentziaz aurre egiteko, ekintza puntual eta isolatuak gainditzea eta bestelako ekintza batzuk sustatzea, Jabetze Feministarako Eskolaren eta Emakumeen Etxearen barruan, bai eta beste programa estrategiko batzuetan ere, hala nola Libre Izan Nonahi programan, zeinak indarkeria matxistaren prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzen baititu gazteen artean. Programa estrategiko horiek Genero-berdintasunerako IV. Planaren barruan bilduta daude; plan horrek, izan ere, egiturazko aldaketa baten premia dagoela azpimarratzen du, erasotzaileen deslegitimizazio soziala sustatzeko, emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria deuseztatzeko eta horren eraginak zein ondorioak suntsitzeko.

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Berdintasunerako Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu zituen, ahalduntze feministan sakontzen jarraitzeko gonbidapena luzatuz, horri esker eskuratzen baitira tresnarik egokienak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko.

Horretarako, Berdintasunerako Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu zituen, hala nola ikastaroak, hitzaldiak eta ikuskizunak, indarkeriari aurre egiteko tresna gisa, eta gure udalerriko emakumeek baliabideak izan ditzaten emakume izate hutsagatik jasaten dituzten edo jasan ditzaketen indarkeria-moduak detektatzeko, prebenitzeko eta haiei aurre egiteko.

Hori dela-eta, tresna-kutxa bat agertzen zen kanpainaren irudian: bertan, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta hori deuseztatzeko ezinbestekoak diren tresnak (jarduerak) agertzen ziren, metafora moduan. Zehazki, lau tresna erakusten ziren: identifikatzeko gaitasuna, ahalduntzea, autodefentsa feminista eta erantzuna.

1- Autodefentsa feministako lantegia 10-13 urte bitarteko nesKentzat (8. atalean)

2 - Libre izan Nonahi Topaketa. Ligoteo osasuntsu, errespetuzko eta arduratsuaren alde (6. Atala)

3 - "Niñas mentirosas, mujeres incómodas. La violencia sexual en la infancia" hitzaldia

Historia, psikologia eta poesia uztartu ziren honako hausnarketa honetan; bi emakumek, beren esperientziatik abiatuta, haurtzaroko sexu-indarkeriaren mekanismoak agerrarazi zituzten, eta erakutsi zuten neska gezurtiaren prototipoak emakume deseroso bilaka daitezkeela, mahai gainean jartzen baitute familiako indarkeria onartu egiten dela. Hizlariak: Norma Vazquez, psikologo feminista, eta Susanna Minguell, filosofo transfeminista. Guztira, 33 emakumek eta gizon batek parte hartu zuten.

4 - "Fabricando mujeres 2.0" dokumentala

Al Borde Films ekoiztetxeak egin du SETEM Hego Haizea GGKErentzat, eta kontsumo kapitalistako indarkeria matxisten gaiari heltzen dio. Gure etxean indarkeria nola kontsumitzen dugun aztertu zen. 12 lagunek parte hartu zuten: 11 emakume eta gizon 1.

5 - "Claves para analizar la violencia machista y construir respuestas colectivas" sakontze-lantegia

Lantegi honen helburua zen parte-hartzaileek, elkarrekin, genero-indarkeriari aurre egiteko estrategia espezifikoak pentsatzea eta garatzea, komunitateak, instituzioak eta taldeak ahalduntzeko eta haiei prestakuntza eta tresna askatzaileak emateko moduan. Lantegi hau, berez, azaroaren 25eko programazioaren barruan biltzen zen; nolahi ere, zerbitzuarekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko, 2022ko apirilera atzeratu behar izan zen.

Maiatzak 17, Lesbo-Gay-Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Zazpigarren urtez jarraian, Berdintasunerako Zerbitzuak jarduerak antolatu ditu maiatzaren 17aren harira. Izan ere, programazio espezifikoak sortu ditu, Jabetze Feministarako Eskolaren programazioaren barruan; era guztietako jarduerak izan ziren, xede-hartzaileei, gaiei –homonazionalismoa eta pinkwashinga, transgenerismoa, harreman homosexualak, trans pertsonen osasuna, homosexualitatea, feminismoaren subjektu politikoa– eta formatuari dagokionez –hitzaldiak, film laburrak, zineforuma, kontzertua, ikastaroa eta antzerkia–.

Hitzaldiak Jabetze Eskolaren Bideotekan daude ikusgai, gainerako hitzaldi guztiak bezala:

- [Claves para pensar los debates sobre el sujeto feminista y sus consecuencias, Miriam Soláren eskutik: aktibista eta integratzaile feminista, genero eta LGTB politikaren gaian aditua; dinamizatzailea: Sejo Carrascosa, kuir aktibista eta Lumagorri ZATEko kidea \(2021/5/11\): https://bit.ly/3H7SNqN](https://bit.ly/3H7SNqN)
- [La salud de las personas trans*. Tránsit, un cambio de paradigma, Rosa Almirallen eskutik: Tránsit zerbitzuaren sortzailea da, transgenero pertsonen osasuna bultzatzeko eta artatzeko zerbitzu bat, aitzindaria munduan; moderatzailea: Bryn Hounsell Río, Ozen! LGTB taldeko kidea \(2021/5/21\): https://bit.ly/3Fi8cEI](https://bit.ly/3Fi8cEI)

Halaber, maiatzaren 17ko udal-programazioaren barruan aurkeztu zen *2020ko maiatzetik 2021eko apirilera sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko txostena*. IV. edizio horretan, Ikusgunek COVID-19 pandemiaren eta LGTBfobiaren arteko harremanari buruzko atal berezi bat gehitu zuen bere txostenean, eta orobat aztertu zuten Berdintasun Ministerioak bultzatutako trans legearen proiektua.

Ikusgune, Gasteizko LGTBfobiaren aurkako Behatokia, Lumagorri HATEk kudeatzen du, elkartearen eta Gasteizko Udaletxearen arteko hitzarmen baten bitartez.

Helburu orokorra LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-egoeren eta indarkeria matxisten gaineko sentibilizazio bultzatzea da, halako egoerak detektatzea eta haiei aurre egitea, ikerketaren, prebentzioaren eta salaketaren bitartez.

2021eko Hitzarmenaren xede-ekintzak hauek izan dira:

- 3- LGTBI+ kolektiboaren aurkako erasoei buruzko informazioa biltzea
- 4- Erasoa jasandako LGTBI+ pertsonen babesa eta laguntza ematea
- 5- LGTBI+fobia publikoki salatzea
- 6- Egitasmoak abiatzea
- 7- Proiektuaren alderdi administratiboa kudeatzea

2021ean Ikusgunek egindako ekintzen artean, hauek azpimarratu behar dira: erasoen salaketa, LGTBI+ erakundeekiko elkarlanean eta Berdintasunerako Zerbitzuarekin batera adostutako protokoloaren arabera; [2020ko maiatzetik 2021eko apirilera sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko txostena](#) IV. edizioa; webgunea eta sare sozialak elikatzea; sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGTBfobiaren tratamendu informatiboari buruzko gidaren zirriborroa, eta hitzaldiak:

- [Empar Pineda Erdozia, gorputzak hala eskatua](https://bit.ly/32JQlb9) liburuaren aurkezpena; autorea, Kattalin Miner, bertan izan zen, Aitziber Perez de Karkamo kazetariarekin batera, eta Artiumekin lankidetzan (maiatzak 5): <https://bit.ly/32JQlb9>
- [Hezkuntzan aniztasun sexu-generikoa lantzeko tresnak](https://bit.ly/3JyQK0J), Amelia Barquín Lópezen eskutik. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea; Txiki Estívariz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskola publiko bateko PT-a eta STEILAS sindikatuko kidea, eta Iban Albizu, Haurreskolak Partzuergoko hezitzailea eta STEILAS sindikatuko kidea (ekainak 1): <https://bit.ly/3JyQK0J>

- *Ginecología sin armarios*, Cristina Cruz Conderen eskutik: LGTBI+ aktibista eta PRISMA elkarteko lehendakariordea; elkarte horrek genero-aniztasun afektibo-sexualaren alde egiten zu Zientzian, Teknologian eta Berrikuntzan (azaroak 6): <https://bit.ly/3JhEf9Y>

2021ean, Berdintasunerako Zerbitzua Lumagorri HATEkin batera jardun da modu iraunkorrean, bi alderdien ekintzak bateratzeko eta ikuspegiak sendotzeko xedez, eta, halaber, Ikusguneren martxa onerako beharrezkoak diren alderdi teknikoetan eta bestelako alderdietan laguntzeko.

Hitzarmenak xedatutakoarekin bat eginez, 2021ean hiru jarraipen-batzorde egin ziren: martxoaren 6an, uztailaren 10ean eta abenduaren 13an. Azken bilera horretan, ohi bezala proiektuaren balantzea egiteaz gainera, Lumagorri HATEk Udaletxeari jakinarazi zion zein izango diren proiektuaren ildo estrategiko nagusiak 2022ra begira.

Gainera, irailaren 27an, ohiz kanpoko jarraipen-batzorde bat antolatu zen. Lumagorri HATEk eskatu zuen batzordea biltzeko, erasoen kopurua asko hazi zelako, batez ere udan, eta horrek harreman zuzena zuelako diskurtso xenofoboekin eta ultraeskuindarrekin. Horri erantzuteko, Udaletxeak sailarteko mahai bat sortzea proposatu zuen, erasoak modu integralean lantzeko, eta mahai horretako kide izan zitezela, gutxienez, Gizarte Politikako Saila, Hezkuntza Zerbitzua eta Udaltzaingoa.

Azkenik, bada beste gertakari azpimarragarri bat: azaroaren erdialdean, Andaluziako Sylvia Rivera Trans Elkarteak T Saria eman zion Amets Martinez Ikusguneko koordinatzaileari "LGTBI berdintasunaren defentsan jarduteagatik eta kolektibo horretako pertsonenganako gorrotoaren aurka borrokatzeagatik". Beraz, aitortza egin zitzaion, Martinezen ibilbide personalari ez ezik, baita gaur egun Gasteizko LGTBfobiaren aurkako Behatokian egiten ari den lanari ere; izan ere, Espainiako estatuan halako behatoki gutxi dago.

Lesbofobiaren eta bifobiaren aurkako sentsibilizazio-materialaren sorkuntza.

Honako material hauek osatu dira, ikuspegi feminista eta interseksional batetik, euskaraz eta gaztelaniaz:

- *Lesbianismoa. Ez gara lagunak bakarrik...* fanzinea
- *Bisexualitatea. Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen* fanzinea
- Bisexualitateari eta lesbianismoari buruzko gida
- Bisexualitateari eta lesbianismoari buruzko kapsula txikiak
- Bannerrak

2020an sortu ziren materialak; 2021ean, berriz, zuzendu, editatu eta inprimatu egin ziren, eta, halaber, hedapen-estrategia bat garatu zen, fokalizatua, zenbait udal proiekturen bidez (hala nola Hiri Hezitzailea eta Jabetze Feministarako Eskola), eta modu masiboan ere bai (aurkezpenak, prentsa-oharrak eta prentsaurrekoak), Alkatetza Saileko prentsa-zerbitzuarekin batera.

2022an material horiek zabalduko direla aurreikusten da.

Indarkeria matxistaren aurrean jendaurreko erantzuna emateko Gasteizko udal protokoloa

2021ean, batzorde politiko-teknikoaren bi bider bildu ostean, Berdintasunerako Zerbitzuak Protokoloa hobetzeko proposamen bat aurkeztu zuen, talde politikoek ekarpenak aintzat hartuta. Azken proposamena onarpen politikoa jasotzeko zain dago; 2022an izango dela aurreikusten da.

Bestalde, 2021eko maiatzean argitaratu zen [Indarkeria matxistaren alorrean Gasteizko Udalak egindakoaren kontu emateko zifren eta datuen txostena, 2020](#). Hiru sailek garatu dute elkarlanean: Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna eta Berdintasuna.

2XE: ERAKUNDEAREN BARRUKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

COORDINAZIO INSTITUZIONALA, INDARKERIA MATXISTARI ARRETA INTEGRALA EMATEKO

2021ean **Etxeko tratu txarren nahiz sexu-erasoen biktima diren emakumeei dagokionez udalak esku hartzeko, bideratzeko eta jarraipenerako II. Protokoloaren** ebaluazioa amaitu eta gero –modu parte-hartzailean egin zen–, eta Batzorde Politiko Teknikoari ebaluazioaren ondorioak aurkeztu ostean, Indarkeria matxista jasandako biktimei arretea emateko, laguntzeko eta bideratzeko III. protokoloa sortzeari ekin zion lantaldeak. Talde horretan honako kide hauek daude: berdintasun-teknikaria (prozesuaren koordinatzailea), GLUZen koordinatzailea, Iparraldeko oinarritzko gizarte-zerbitzuaren arduraduna, Onarpeneko psikologo bat, eta, Udaltzaingoaren partetik, Genero- eta Familia-Indarkeriako arduraduna eta Indarkeria eta Salaketen Taldeko inspektoreordea (beste inspektoreorde batek ordezkatu zuen tarte batez), LGTBfobiaren ondoriozko ustezko balizko delituak aintzat hartzeko. Urria iristerako, testua osatuta zegoen, eta bi sailen ekarpenak jaso ziren. 2022ko urtarrilean aurkeztu zen Batzorde Politiko-Teknikoan, eta dokumentua ontzat eman zen.

2021ean lantalde bat osatu zen Giza Baliabideen Sailean; gaur egun, **Lan- eta sexu- jazarpenaren eta jazarpen sexistaren edo sexu-arrazoizkoaren edo genero-identitate eta adierazpenagatiko jazarpenaren aurkako Gasteizko Udalaren prebentzio- eta jardute-protokoloa** berrikusten dihardute. Berrikuspena amaitu ostean, tartean diren beste Sailekin eta eragile sozialekin aipatuko da.

3XE: INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI AITORTZA EGITEA ETA BEREN ERREPARAZIOARI LAGUNTzea

2021ean, **Gizarterako elkartearen bitartez, prostituzioan diharduten emakumeak ahalduntzeko programa bat babestu da.**

“TOPATZEKO ESPAZIOAK” antolatu dira, harremanak sendotzeko eta autoestimua, autoezagutza zein autohausnarketa lantzeko, betiere prostituzioaren arloko emakume-kolektiboaren ahalduntze-prozesuak hauspotzeko xedez.

Saiotetan, honako eduki hauek landu dira:

- Nire identitatea: nola identifikatzen naiz eta nola identifikatzen naute besteek.
- Nire burua identifikatzea: eskubideak izateko eskubidea duten pertsonak.
- Nire gaitasunak eta indarguneak.
- Nire nahiak: egunerokoan eragiten didaten errealitateen harira erabakiak hartzeko ahalmena.
- Nire osasun emozionala eta psikikoa.
- Nire gorputza.
- Gure beldurrak: egoerei aurre egiten ikastea (trebeziak).
- Bakardadea.
- Autoezagutza, harreman afektiboak, autoestimua eta konfiantza.
- Pertsonen arteko harremanak: ezagutza eta kudeaketa.
- Arazoei eta kontrako egoerei aurre egitea; automotibazioa.
- Neure erabakiak hartzea: erabakiak hartzeko gaitasuna, horren ondorio positiboak eta negatiboak.
- Familia: familia-unitatea, familia-premiak, maitasuna, mendekotasuna, betebeharrak, familiako rolak, bakardadea...
- Rol sozialak.
- Nire sinesmenak: jaioterriko alderdi kulturalak lantzea, begirada zabaltzeko xedez.

- Indarkeria: indarkeria-motak, nola detektatu indarkeria-egoerak; zer egin indarkeria jasanez gero: zer baliabide dagoen.

16 emakume etorri dira, migratuak batez ere, 25 eta 45 urte bitartekoak. Parte-hartzaile guztiak esku-hartze prozesu batean daude; prozesu hori gizarte-langileak diseinatu du, gizarte-hezitzailearekin elkarlanean, eta parte-hartzaileen eskaerak eta premiak aintzat hartuz denbora guztian.

06

ZERBITZUAREN ORGANIGRAMA

BERDINTASUNERAKO ZERBITZUAREN ORGANIGRAMA



07

ZERBITZUAREN LABURPEN EKONOMIKOA 2021

2021EKO AURREKONTUAREN BETEARAZPENA. LABURPENA, AURREKONTU-SAILEN ARABERA

KONTZEPTUA	BAIMENDUA
II. KAPITULUA	
2020/0160.2381.22711 – BERDINTASUNERAKO PLANA	56.242,33
2020/0160.2381.22714 – SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAREN AGENDA	39.776,55
2020/0160.2381.22713 – INDARKERIA MATXISTA PREBENTZIOA-ARRETA	80.813,29
2020/0160.2381.22712 – JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA	207.677,30
IV. KAPITULUA	
2020/0160.2381.48120 – BEHATOKIAREN HITZARMENAREN DEIALDIA	75.000,00
2020/0160.2381.48139 – EMAKUME ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK	65.000,00
VI. KAPITULUA	
2020/0160.2381.62925 – LGTBI BEHATOKIA	18.544,70